



Bizkaiko Aldundiko garbiketaz arduratzen den Garbaldi azpikontratak Kaputxinos Ogasuneko eraikineko 16 langileri eragingo dien aldi baterako lan erregulazio espedientea (ERTE) iragarri du. Lan erregulazio espedientea abuztuaren 1etik 31ra aplikatuko litzake, %21,73 jaitzierarekin. Hau dela eta, erabaki horren aurkako protesta egin dute gaur langileek, aldundiaren aurrean.

LAB, ELA, CCOO, UGT eta ESK sindikatuok [adierazpen bateratua osatu dugu](#) : "ERTE honek Kaputxinos Ogasuneko langileei eragiten die; bihar, aldundiaren beste lan zentro bati eragin diezaioke"; ohartarazi dugu.